

# NAHASPILA SALTSA BERDEAN (PARA DIGLÓXICOS INCURABLES)

XABIER GALARRETA

© Marjinalia Bilduma

© Xabier Galarreta

2000. urtea

Lege-Gordailua: SS-886/2000

# AZALEZKO GOGOETAK

## KOSOVORI BURUZKO HAINBAT GOGOETA

Ez naiz aditua ezertan, are gutxiago Balkanetako historiaz. Baina denak bezala, sentitzeko gauza naiz —denok modu berean sentitzen ez badugu ere—. Ez naiz inguru-ninguruka ibiliko: lehenik Bosnian eta geroago Kosovon, hasieratik bertatik egon naiz partehartze militarren alde. Beraz, NATOk Jugoslaviari erasotzearen aldekoa naiz. Eta ontzat ematen ditut bonbardaketak eta ekintza militarrek oro, baldin-eta helburu badituzte Milosevich-en gobernu ustel eta genozida suntsitzea.

Guk, euskaldunok, aspalditik genekien Europa, estatu handiez ezezik, herri txikiez ere osaturik zegoela; eta herri txiki horiek legez izan beharko lituzketen eskubideak errespetatzen ez direnean, halako deskalabruak gertatzen direla: gerrak.

Kakati batzuek berehala aurkitu dute istilu horien arrazoa: "Kosovoko abertzale burugabeen errua da"; "independentzia nahi zuten kosovotarrek eragin dute hango espantua". Bai, halako iritzi kriminalak sarri entzuten dira telebista-kate ultranazionalista guztietan —entzun ere, gauza okerragoak ere entzuten dira, ildo horretatik abiaraziak denak—. Eta badakit Espainiak ere ofizialki NATOren kanpaina militarra onartzen duela; baina espainiar asko, beti bezala, batean kale eta bestean bale ibiltzen dira —euren mediokritate izpiritualak hartara bultzatzen baititu.

Baina jarrai dezagun Kosovoko gerrari buruz hitz egiten. Batzuetan, punteria huts egiten omen dute NATOko pilotuek. Tira, ez dut esango pozten naizenik, baina ehundaka disparoren artean baten bat huts egitea, arrazoizkoa iruditzen zait. Nik, behintzat, punteria-hutsegite batengatik ez nituzke bonbardaketak geldiaraziko. Bestalde, nik hemen ikusten dut arazo etikoaz harantzago doan beste zerbait. Azalduko dizuet zer den: serbiar nazioak herritar zibilak sartu ditu bere estrategia militarren barruan; NATOk, ordea, ia-ia barkamena eskatu behar dio munduari —eta nola ez, serbiar nazioari— misil bat oker jaurki eta pare bat zibil sarraskitzen duen bakoitzean.

Serbiako armadak milaka zibil sarraskitu ditu gaur gero, eta sarraski horiek ez dira ez istripuz ez nahigabe gertatu; aitzitik, estrategia militar kriminal baten barruan kokaturik egon dira serbiarren ekintza guztiak. Labur esanda: NATOk hiltzen duen zibil bakoitzeko, serbiarrek 100 zibil hiltzen dituzte. Eta ez dut uste azaldu dudak kopurua gehiegikeria denik. Hortaz, zer arraio egin behar da nekazariak, emakumeak, agureak, gazteak, gizon baketsuak eta haurrak helburu militartzat hartu dituen nazioarekin? Posible ote da —militarki, posible ote da?— inolako nobleziarik erakusten ez duen herriari nobleziaz erantzutea?

Europar itxura txukuneko herritarrak dianatxo bat bularrean jarrita joaten dira euren zubiak babestera, Belgradon; baina... zergatik ez dute modu berean jokatu Bosnia, Kroazia eta Kosovoko herritar babesgabeekin? gehiago balio al dute euren zubi zorritsuek milaka pertsonaren biziek eta ongizateak baino?

Hala ere, salatu ere egin nahi dut OTA arrazoi batengatik: Kosovora lurreko tropak hasieratik bertatik ez bidaltzeagatik. Hori bai koldarkeria! Zertarako daude, ba, gure soldadutxoak? Bake-garaian maniobra eta desfile barregarrietan euren denbora eta gure pazientzia (eta sosak) alferrikatzeko, akaso? Soldaduak behar dira soldaduei aurka egiteko; soldaduak behar dira herritarrak sarraskitzen dituzten soldaduak, poliziak eta paramilitarrak sano garbitzeko. Vietnam berri bat? Apika, baina arrazoi on batengatik:

askatasunagatik, nazio txikien eskubideengatik, genozidei garesti ordainarazteagatik.  
Horretarako merezi du, bai, bolbora piska bat erabiltzea...

### \*\*\* ETA BERROGEI LAPURRAK

Hori bai, lapurrak emakume bihurtuta oraingoan. Eta ez dago gaizki ikusita, zeren nola emakumeak diren... «Epaile jauna, lapurtu egin naute». «Nork?». «Emakume batek». «Zerbait egingo zenion. Hurrengo kasua!». Horrelaxe dabil justizia.

Baten batek galdetuko dit ea niri zer axola erregetzako kontuek, ea nire zainetatik odol urdina darion ala zer arraio. Ba, ez jaunok/andreok. Nire zainetatik, gehienez jota ere, leuzemia dabil. Niri, ordea, injustizia eta bidegabekeria inporta zaizkit. Eta Ingalaterrako auzi ospetsu horretan gertatutakoaren islada garbia baino ez da gaurko gizon dibortziatu ia guztiengan gertatzen den bidegabekeria konstituzionala.

Estatuak familiaren alde egiten du. Dibortziatzeko eskubidea ematen dizu, bai, baina... zein preziotan! Bi mila, hiru mila milioi dolar ez dira nahikoak emakume ingeles horren dibortzioa ordaintzeko! Horixe bera gertatzen da errealitatean ere. Uzten diozu emakume bati beharbada zeurea zen etxea, uzten diozu zeure soldataren puska ederra, uzten dizkiozu (edo lapurtu egiten dizkuzute) seme-alabak... Dena galtzen duzu. Estatuak zigortu egiten zaitu. Ezkontza sakralizatuta dago. Ezkontzaren aurka egiten baduzu, estatuaren aurka ere egiten duzu. Izango duzu, bai, ondorioen berri. Bien bitartean, emakumeak pozik.

Eta emakumearen aldeko mugimenduak, isilik (noski).

Matxismoa egon badago; eta ni, horren aurka (nola ez, ba!); femitxismoa egon ere badago (baina, barkatu ausardia!).

Femitxismoa. Hitz berria. Zer den? Matxismoa bezala, baina obarioz jantzita. Gauza berberaxe. Zer uste zenuten, ba? Boterera iritsitakoan, hamalau urteko neskatok bezain birjinalak iraungo zenutela? Bai eta zera ere! Gizonak bezala, kopetaraino kakaztuta gelditzen ari zarete. Nik oso garbi daukat: dibortzioaren legea, den bezalaxe, matxinatzeko moduko legea da. Berdin dio gizon dibortziatua izateak ala ez. Mehatxua hortxe dago. Zeren inportanteena, hori da-eta:

—Kontuz, gizon: dibortziatuz gero, kaltontziloak ere galduko dituk eta. Hire emazte-ohiari oparituko zizkioguk, berak bere amorante berriari opari diezazkion. Noski, feministek txintik ere ez kontu horretaz (kristoren borroka, motel, Irungo Alardearekin!).

Gizonarekiko berdintasuna: zergatik ez dira emakumeak borrokatzen, dibortzioaren legea dela-eta, berdintasun berbera lortzeko? Gauza batzuen kasuan, desberdintasunari eutsi nahian edo...?

A, tira. Ia ahaztu zait: elkartasuna! Ditxosozko elkartasuna. Barkatu. Umiltasunik handienarekin. Barkatu, barkatu, barkatu. Badakit ez naizela ginon duina, Emakumea defendatzen duen lege baten aurka altxatu naiz-eta. Barka, barka...

Legeari ez zaio inporta emakumeak lan egiten duen ala ez. Berdin jokatzeko du-eta kasu guztietan. Izango zara emakume mediku edo arkitektoa. Berdin dio: gizona bazara, ordaindu egin behar duzu. Izango zara errekurtsorik gabeko emakumea edo izango zara emakume milioiduna. Berdin dio: gizona bazara, ordaindu egin behar duzu. Eta ordaintzen ez baduzu, hori izango da zure emazte-ohiari pena eman diozulako. Zeren legeari... bost axola.

Nik gero eta garbiago daukat: dibortzioaren legea salatu beharreko zerbait da. Dibortzioaren legeak bereizketak egin behar ditu: tartean seme-alabarik ba ote dagoen ala ez (ez badago, zergatik eman behar diozu zeure emazte-ohiari hil arteko pentsioa?); errekurtsorik gabeko emakumea zaren ala ez (esaterako, lanbidez emakume mediku edo arkitektoa bazara, edota ongi ordainduriko lana baldin baduzu, zer dela-eta behar duzu zure senar ohiaren dirua?); gizonaren lan-egoera; e.a. Hori guztia ikusita, dibortzioaren legearen atzetik dagoena lapurreta baino okerragoa da: bortxaketa bezalakoa da. Eta horrelaxe salatua izan beharko litzateke gizartearen aurrean.

Artikulu honen hasieran esandakoa azpimarratu eta berriro aldarrikatu nahi dut: \*\*\*  
eta Berrogei Lapurrak. Hori bai, lapurrak emakume bihurtuta oraingoan. Eta ez dago  
gaizki ikusita, zeren nola emakumeak diren...

## ITZULTZAILEEN TITULAZIOAK

Zer eskatu behar zaio itzultzaile bati erakunde publiko zein pribaturen batean itzultzaile-lanetan aritzeko? Baten bat erantzutera lehiatuko da: titulazioa. Tira, ondo da, hala uste baduzu. Baina... zein titulazio? Lizentziatura (lau-bost urteko ikasketak), diplomatura (2-3 urtekoak)...? Tira, utzidazu nor zaren asmatzen: lizentziatua bazara, orduan lehenaren aldekoa; diplomatua bazara, bigarren aukeraren aldekoa, noski. Kalitate-irizpideak? Ez, lagun, ez. Nahi baduzu, sartu ziria zeure buruari; baina ni ez nauzu engainatuko: itzultzaile bat kontratatzeko ateratako oposaketan, balizko lehiakideak da zuk ezabatu nahi dituzunak; eta ez zu besteak baino hobea zarelako, baina oposaketa irabazteko aukera gehiago izateko.

Izan ere, itzultzaile bati eskatu behar zaiona prestakuntza eta bere lana zintzo betetzeko gaitasuna izatea baino ez da. Beste kontu bat da, noski, itzultzaile horren prestakuntza eta gaitasuna nola neurtu, zein irizpide erabili behar diren —bi baldintza horiek betetzen dituen ala ez— egiaztatzeko (oso zaila ez balitzateke ere: “tori, itzuli testu hau”).

Lizentziaturek eta diplomaturek eta gainerako *titulatura* guztiek —pertsonek batek itzultzeko ustez dituen gaitasunari eta prestakuntzari dagokienez—, oraingoz egiaztatzen diguten gauza bakarra zera da: pertsona hori titulu baten jabe dela, hau da, 115 gr.ko paper baten jabe dela. Baina paper horrek ez dizkigu inolaz ere bermatzen itzulpen-lanetan aritzeko itzultzailegaiak ustez dituen prestakuntza eta gaitasuna; areago, kultur gizon/emakumea benetan ote den ere ez digu ziurtatzen.

Gainera, zein “karrera-motak” ote dira “egokienak” itzulpengintzan “ondo” aritzeko? Letraoak, esaterako? Pedagogia, Filosofia, Psikologia, Literatura Hispanikoa...? Baliteke, bai, baldin-eta helburua pedagogiari buruz, filosofiari buruz, psikologiari buruz eta literatura hispanikoari buruzko itzulpenak egitea bada. Baina... Balbula hidraulikoek bete-beharreko segurtasun-arauei buruzko edota zehaztugabeko oinarria duten transistore epitaxialei buruzko itzulpenak badira, zer? Fisikari bat jarriko al dugu itzulpen-lanetan?

Beste arazo bat: goiko paragrafoan aipatu ditudan goi-mailako ikasketak euskal itzultzailegaiak erdaraz egin baditu, gero...? zer onura dakarkiote erdarazko karrerekin euskal itzultzaile jardun nahi duen bati? Batxilergoa, UBI eta Selektibitate euskaraz egin dituen baina hobeto prestatuta al dago, euskal itzultzailea izateko, Filologia Hispanikoa —esaterako— Valentzian egin duena baino? Benetan, ez dut onuraren arrastorik txikiena ere ikusten.

Beste arazo bat: gai batean aditua izateak ez ditu ziurtatzen adituaren hizkuntza-zuzentasuna eta jatorria. Esaterako, niri hainbat itzulpen juridiko euskaratzea/erdaratzea egokitu zaizkit. Abokatuak, prokuradoreak eta abarrek idatzitako testuak ziren. Beno bada, horietako batzuk zuzen eta egoki idatzita bazeuden ere, beste zenbait idazki, berriz, erdipurdi idatzita zeudela esan behar dut. Zergatik? Erabiltzaileak euskaraz ondo ez zekielako (eta askotan, ezta erdaraz ere). Beste adibide bat: hirigintza-proiektuak eta arau subsidiarioak nortzuek jartzen dituzte euskaraz? Itzultzaileak, noski. Zergatik? Bada arkitektoak, euskaldunak izan arren, euren proiektuak-eta euskaraz idazten ausartzen ez direlako (ondo egingo ez luketeela badakitelako). Hiruzpalau urte euskaraz ikasten-edo daramatzen epaile euskaldunberriaren euskaraz fidatuko al zinateke? Ni, egia

esan, gehiago fidatuko nintzateke itzultzaile profesionalak egindako itzulpenaz (nahiz-eta zuzenbide-alorreko ikasketak ez izan), alorreko profesionalak (epaileak alegia) euskaraz idatzitakoaz baino. Eta baieztapen horrek alor guzti-guztietarako balio du. Beraz, itzultzaileak profesionalak baino hobeto egin dezake (egin-egin behar du), profesionalak hizkuntzaz duen ezagutza okerra bada (eta zoritxarrez, hori sarritan gertatzen da gure artean —horregatik itzultzen da hainbeste gure herrian—) edota gaiaren zailtasuna handia bada (esaterako, jende askok daki ingelesez baina itzulpen tekniko bat egiteko oso jende gutxi moldatzen da ondo).

Bestalde, Administrazio Publikoan itzulpen-lanetan aritzeko, zer dela-eta izan behar duzu, esaterako, Filosofian lizentziatua? Zertarako ikasi zenuen, orduan, Filosofia? Udal bateko aktak eta zirkularrak itzultzen aritzeko, erretiroa hartu arte? Horregatik ikasi zenuen filosofia? Horregatik igaro zenituen zure bizitzako bost urteak goi mailako ikasketak egiten? Barka, baina hori egia baldin bada, zuk orduan zure buruari eta zure gizarteari torpedo baten tamainako ziria sartu diezu, zuk ez baitzenuen filosofoa izan nahi, zuk funtzionaria edota udal itzultzailea izan nahi zenuen.

Jakina. Langabezia handia dago eta laster pixa egiteko oraindik ere hasiko zaizkigu titulazio eske, iladan puxika lehertzen denbora gehiago edo gutxiago nork igaro behar duen erabakitzeko. Dena den, gauza tristea izan behar du, esaterako, injinerutza ikasi eta gero aktak itzultzen bukatzea (zeren aktak itzultzeko oposaketetara aurkezten diren injineruei ere lehentasuna eman beharko baitiegu, filosofia ikasi dutenen kalterako, denok dakigunez zailagoa baita injinerutza-titulua lortzea filosofia-titulua baino —nahiz horrek ez esan nahi bata bestea baino “errazagoa” denik—; jakina, filosofian lizentziatu asko eta asko artean enteratu gabe dabilta).

Arren, aktak itzultzen diharduten itzultzaile horietako bat bazara, ez hartu gaizki, ez pentsa gutxiesten zaitudanik. Egia esan, ni neu ”itzultzaile tekniko” horietako bat naiz, eta horregatik ekin diot lerro hauek idazteari: itzulpengintzan ez dakit zenbat urtez aritu eta gero, gutxietsita sentitzen naizelako, ez bainaiz ez lizentziatua ez diplomatua.

Batxilergoa, UBI, Selektibitatea eta EGA titulua dauzkat. Eta hainbat karrera hasi banituen ere, denak utzi nituen bertan behera. Ez zait damu ordea, nire lanerako ez bainuen karrerarik behar. Itzultzaile txukuna izateko, dauzkadan tituluekin nahikoa da-eta. Prestakuntza, ordea, ez dago inoiz soberan: ikastaroak, esperientzia, lan gogorra, hizkuntzak ikastea gogoko izatea, borondatea, lanbidearekiko deia sentitzea, kultur eta irakur zaletasuna, buru-estimua, gero eta hobeto itzultzeko nahia eta borondatea, ausartasuna, erakundeen eta enpresen eta lankideen laguntza... Zer gehiago behar du baldintza horiek guztiak betetzen dituen itzultzaileak?

Bestalde, gure errua al da gaur egun oraindik ere Itzulpengintza-Ikasketak egin ezin izatea, Euskal Unibertsitatea orain arte gai honetaz arduratu ez delako? Bai, badakit Itzulpengintza-Ikasketa ofizialak laster aterako dituztela, baina... berrogei urte inguru dituzten itzultzaileekin zer egin behar da, gero? Bost urte barru, esaterako, estraineko fabrikatik lehen “Itzultzaile Tituludunak” ateratzen direnean, itzultzaile-titulua ez duten gainerako itzultzaileak baino hobeak izango al dira perla berriak? Hogei urteko eskarmentua daukatenak baino finagoak? berrogei urtez beren lana txukun betetzen daramatenak baino trebeagoak?

Gainera, itzultzaile baten curriculum-ean lizentziaturak eta titulazioak kontuan hartzeaz gain, beste hainbat alderdi ere baloratzekoak izan behar direla iruditzen zait. James Yoicek, esaterako, ez zuen inoiz ikasketak bukatu, baina hori dela-eta inork ez zion inoiz ukatu akademia batean ingelesa irakasteko eskubidea edota itzulpen on bat argitaratzeko aukera; alderantziz baizik. Eta itzultzaileekin sarritan gertatzen da haietariko asko literaturari ere uztartuta egotea, horrek berez dakarren kultur-seinalearekin (zeren, azken batean, hori da titulazioetan bilatzen duguna, ezta?: tituluduna kulturaz ondo jantzita dagoen seinalea, froga).

Ea ulertzen didazuen: niri benetako eskandalua irudituko litzaidake itzulpen-lanetan aritu behar duen funtzionari publikoari eskola-graduatu, esaterako, besterik ez eskatzea. Gaurko egunotan, gainera! Baina, non gertatzen da hori? Nongo udaletan, nongo administrazio publikotan gertatzen da hori?

Denok badakigu gure gizartea erabat klasista dela. Eta ildo horretatik, lizentziaturak eta diplomaturak dituztenak beren neurrirako mundu bat antolatu nahi ez ote duten susmoa daukat, mundu klasista bat alegia (hori baita titulazioek askotan ematen duten emaitza bakarra: jende kulturadunaren orde, jende klasista —bost urteko ikasketez gain, curriculumean zer gehiturik ez daukan jendea; irakaskuntzan funtzionariaren izpiritu berberaz aritzen den jendea; liburu bakarra argitaratu gabe erretiroa hartzen duten *intelektual*-mota horretako jendilajea).

Itzulpengintzaren kasuan, jarrera hori ez dut inolaz ere onartzen, zerren, itzulpengintzan aritzeko, bai administrazio publikoan bai erakunde ofizialetan, guztiz egokia eta nahikoa baita Batxilergoa, UBI, EGA titulua, itzulpenarekiko zaletasuna, sena, eskarmentua, kultura zabala eta alorreko prestakuntza berezitua izatea.

Filosofian lizentziatua bazara, lan egin Unibertsitatean edo lizeo batean; psikologoa bazara, ireki gabinet bat edo heldu irakaskuntzari (zure alorrean); maisua bazara, eman eskolak; aparejadorea bazara, bilatu lana eraikuntza-sektorean; kazetaria bazara, aritu kazetaritzan; abokatua bazara, prestatu zure bezeroen defentsa; arkitektoa bazara, eraiki etxeak...

Karreraduna ez bazara, baina kultura maite baduzu, eta kulturarekiko inoiz itzaltzen ez zaizun kezka bizia baduzu, eta itzulpengintza maite baduzu, eta hizkuntzak ikastea eta liburuak irakurtzea (mota guztietako gaiak, gainera) izugarri gustatzen bazaizu, eta benetan uste baduzu mundu honetan itzulpenak baino ez dituzula egin nahi, orduan, izan zaitez itzultzailea, edo behintzat, saia zaitez itzultzailea izaten... imajinazio gabeko tituludun harroputz eta klasista guztien gainetik pasatu beharko bazenu ere.

## EUSKALDUNBERRIA NAIZ

... eta harro nago. Ea harroputza naizen? Ez dakit. Eta zu? Besteen harrokeria beti hortz artean duena... Baina bidera dezagun gaurko mintzagaia.

Lehenik, “*zer dela-eta hizkuntzaz aldatu?*” Niri galdetzen al didazu? ala azken hogeï mendeotan euskarari uko egin dioten euskaldunzahar-aldrari? Ez dakizu, ezta? Bada, dakizun artean, pentsa dezagun beste gauzaren batean (bertsoa eta guzti, hi!)

Bestetik, zein izango ote da etorkizuneko euskara? Denoi ardurua handia sartzen digun gaia, noski (baita egunero erdaraz aritzen diren edota aritu nahiko luketenei ere). Nik —eta barkatu— neure ohizko harrokeriaz erantzuna aurkitu dut: gaurko euskara guztien emaitza. Horra zein izango den biharko euskara. Euskaldun zaharrena eta euskaldun berriena. Jende ikasiarena eta ez-ikasiarena. Mintzo ederrekoena eta hizkera gaiztokoena. Matematikaria ez banaiz ere, formula matematikoak bilatzen mundiala naiz ni. Horra errepikatua, merezi du-eta: biharko euskara gaurko euskara guztien emaitza izango da.

Nire ustez, oso garrantzitsua da nire formula matematikoaren nondik norakoa ondo ulertzea. Esan nahi dut euskararen etorkizuna denon esku dagoela, denok daukagula hizkuntzaren gainean eragiteko aukera. Geure egin, hartaz jabetu. Zeren, nork nahi du beti arrotza egingo zaion “gauza” bati atxiki? nork nahi du inoiz ukitu ere ezin izango duen mutil/neskarekin amodioa egin? Kanpaiak jotzeko, ez dugu ezeren behar, ezta hizkuntza baten premiarik ere. Bestalde, ez nintzateke ni inorekin bizitzen jarriko soilik kanpaiak elkarri jotzeko (ondo pentsatuz gero, agian, hain gaizki ez balegoke ere). Metafora hutsa, motel. Me-ta-fo-ra hu-tsa!

Hortxe dago gakoa: hizkuntza dela-eta hutsik ez geratzea, eta aldi berean hizkuntza hutsik ez uztea. Ederra gure komeria. Hogeï urtez bizitzen hizkuntza batean eta ez dakit-noren-biloben txisteak ulertu ez! Tira, badut zerekin kontsolaturik: Bartleby, Gauaren muturrerainoko bidaia, Ipuin fantastikoak, Ipuin hautatuak... Ez da gozamen makala, horiengandik atera dudana (torero! torero!)

Jakina, denbora-kontu hutsa ere ez da. Denboraren poderio hutsez seguru ez duzula zure euskara-maila hobetuko. Lana dago asmo ororen atzean, lan gogorra gainera! Esker txarreko lana? Bai eta ez. Hizkuntza galtzen ari den herrian zaila da, benetan, esker txarrekoak topatzea. Baina, hala eta guztiz ere, halakoak aurkitu ere egiten dira, ez pentsa. Euskarak hartu duen indarraren adierazgarria ere izan litekeena. Egizu aproba, bestela, frantsesez edo ingelesez Frantzian edota Ingalaterran, agoantatzen zaituzten luzez. Aldea nabarmena bada ere: gu ez gara ez frantsesak ez ingelesak; gu bertokoak gara. Erroak hementxe dauzkagu, lur honetan. Hau da gure lurra, gure herria. Eta arnasartzen dugun airea, edaten dugun ura eta zapaltzen dugun lohia, geurea da. Jaiotzez, historiaz, heredentziaz eta oinordekotzaz, justiziaz eta genetikaz eta per couyouns. Hau da gure lurra; eta ez da nire errua (olé!). Hor konpon, 39.eko gerra galdu baten. Nik ere jasan behar izan ditut Diktadura luzearen ondorio negargarriak. Beraz, izorra zaitetz piska bat, behintzat, ni izorratzen naizen bezala. Eta ados ez bazaude, izorra zaitetz oraindik ere gehiago, benetan. Ez zait beste ezer bururatzen, eta mintzen bazaitut, hobe. Bestela, deskuidatuz gero, bide antzuren batean amaituko gara denok. Ni eta gainerakoak. Arabar ia guztiak, Iruñea aldean gogor ahalegintzen ari direnak, goian eta behean geratu direnak —erdaraz ondo ikasi dutenak

barne—. Gainera, jada elebakarra ez den herriak ezin du bere hizkuntzaren estetika norabide bakarreko bideetan oinarritu. Batzuek, hibridazioa esaten diote kontu itsusiari. Atxakia izan behar ez lukeena, hizkuntza zerri eginda uzteko. Horretan denok ados. Zinez aspergarriak gu, euskaldunok, beti euskarari buruz mintzatzen, ideien mundua errezel batez estalita izango bagenu bezala. Batzuen ezintasuna eta besteen ezaxola ezkutatzeko, ziurraski.

Bai, lagunok. Euskaldun berria naiz. Eta batzuek esaten duten bezala, harro nago. Agian, denok bizi gara auzo berean: putak, idazle pornografikoak, euskaldunberriak eta maritxuak.

Gauza batekin ez nago ados, ordea. Laurogeita bi urteren buruan, eta hitzak totelka eta larderiatsu mihinaren puntan? Tse-tse, erronka egiten dizut: zu eta biok Moneoren Kuboetako areto batean, zu kabina batean eta ni beste batean. Aldi bereko interpretaritza-lan baten aurrean, erdaratik euskarara, hizlariaren gaia zein den alde zuzenetik jakin gabe. Amen batean, baietz ehun esaldiko abantaila zuri atera! Ikusiko genuke, orduan, nor den totela!

Nirekin indarrak neurtu nahi dituenak prest nauka, hartzeko eta emateko. Oxtia gogorak gainera! Ohitua nago-eta. Beldur gutxi niri, izen-abizenak zikintzea, ohorea aspaldian galdutako putak bezala. Fantasia bat naiz. Ni eta nire euskara eta nire euskaldunberritasuna eta nire gizatasun teatrala. Eta ez dut ezer saltzen; beraz, nahi dudana esateko askatasun osoa daukat. Askok ezin dute gauza bera esan, zeren hala eginez gero, ezer gutxi salduko baitzuten. Olerkari eta idazle-andana bat dago, Coca-Colaz eta El Diario Vascoz elikatzen dena; marketingari buruz asko dakiten idazleak; aiton-amonen euskara, bizitzeko eta gozatzeko erabili beharrean, gaitzesteko eta bazterrak nahasteko erabiltzen duten Unibertsitateko irakasleak.

Nik, egia esan, orain arte nahiago izan dut zezenak urrutitik ikustea; hurbilduz gero, berehala atzematen dut-eta heroiaren ezpaletik ezer gutxi dudala. Gainera, zuek esango didazue zertarako balio duen buruan bi adar besterik ez daukan eta beti haserre-antza dagoen muturbeltz horietariko baten aurrean jartzeak, zer ordu den jakiteko ez bada. Kakatik sagardoa lortzen saiatzea bezain zail eta alferrikakoa, hi!

## IDAZLEAK

Gaurko idazle asko putak bezalakoak dira: ikusten badute bezeroa ondoko putarengana joaten, orduan hor hasten dira oihuka: “Put! puta!”. Horren errua, ditxosozko marketinga, noski. Saldu beharrak uzten baititu zoratuta baita idazlerik iraultzaileenak ere. Azken hauek, egia esan, okerrenak izan ohi dira, erabat pobreak izan ezik. Zeren halako kasuetan filosofia existentzia bihurtzen baita, hau da, zinikoak izateko inongo aukerarik ez izatea deritzona. Ur azkarragoetan sartu gabe diot hori; izan ere, zurrunbiloak harrapaturik itota geratutako idazle bat baino gehiago bada munduan, euskalduna izan ala ez. “Potroetako minak” ez baitu bereizketarik egiten, berdin-berdin eragiten du-eta arraten gainean zein gizakien gainean. Azken batean, horixe da idazlearen arazorik handiena: gizakia izan ta estolderietan bizi beharra —gizakien txaloekin, hori bai, barruko poza eta narkisizmoa toki onean uzteko beti ere.

Idazleen artean badira bi motatakoak: dirulaguntza jasotzen dutenak eta dirulaguntzarik jasotzen ez dutenak. Zeren salmenten lepotik bizitzeari begira, horretan ez baitago burua lar hautsi-beharririk sailkapenak egiten: ez dago inor hain urrun heldu denik. Gure arteko euskal idazlerik onenek ere jai izango lukete, saltzen dituzten liburuen bizkar bizi beharko balute. Baina nonbait falta zaie halako kontu “ez-nobleak” argitara emateko grazia, konturatuko baikin denok badakigun horretaz: txuletak liburuak baino askoz hobeto saltzen direla. Zerbaitengatik izango da, dudarik ez, zerbaitengatik izango da...

Nik marketinga (vaya una mierda de palabra) ipurditzulotik sartzea erabaki dut, Luis XVIII.aren ondorengoa naizela aprobeixatuta. Ez haserratu nirekin, idazle-saltzaileok, ez da ezer pertsonala. Bakarrik gauez zakilan halako hazkura sentitzen dudanean, hazka egiteko aurkitu dudana modu bakarra dela, eta ez besterik. Baina esaten ari nintzenez, marketinga (vaya una mierda de palabra) eta biok nahiko gaizki konpontzen gara. Horregatik gorrotatzen naute ia idazlerik gehienek, badakitelako marketinga oso garrantzitsua dela beren bizitza zorritsuetan eta beren “esperientzia literarioetan”. Osea, kafea urarekin hartzea bezala. “Zer esan nahi duzun, bestelakoa bota”. Zeren liburuak ondo saltzeko, telebistako audientzia-irizpideak aplikatzea bezalakorik ez dago: denei gustatuko zaien programazioa, denek ulertzeko moduko hizkera, sentsibilitate guztiak asebeteta uzteko antolamendu dialektikoa... informazioa eta iragarkiak ondo saltzen jarraitzeko (nola ez, ba!).

Labur esanda, izan zaitetz zu ez beste nahi duzuna, argitaratzaileak (enpresariak alegia) izateko agintzen zaituena; asma ezazu gezur erraldoi bat eta gero sar zaitetz gezur horren barruan eta hortik ez zaitetz sekula atera kaka guztia berez lehertzen den arte, hau da, publikoak zuri bizkarra eman arte. Orduan, zaharkitutako putak/putok bezalakoak izango zara, eta bezeroa ondoko putarengana joaten ikusten duzunean, orduan hasiko zara oihuka: “Put! puta!”.

Aholku bat edo beste, liburuak txit ondo saltzeko: ez esan inoiz benetan sentitzen duzuna, benetan pentsatzen duzuna; esan beti “gehiengoak” sentitzen duena (edo sentitu uste duena), gehiengoak entzun nahi duena. Eman koipea alegia, eta bizi zaitetz zor@iontsu, putatzen baten aluan hazitako perretxikua bezain harro. Bai, zenbat eta liburu gehiago saldu orduan eta hobea izango zaren baieztapena errefuxatzerik ez dagoela konturatzen joango zarela ikusiko duzu garbi baino garbiago txakurren neurrira eginda dagoen mundu gero eta txikiago eta poluituago honetan bizi zaren idazle hori.

Benetan, ez da ezer pertsonala. Nik, egia esan, pertsonala dudan gauza bakarra nire ordenagailu berria baino ez da (zaharra esatera nindoan, baina ke ostias!, batzuetan harrotasun pittin bat erakutsi behar da).

Bestalde, marketinga eta gezurrak tonaka saltzea ez pentsa hain desberdina denik. Niri idazle “niñatoek” ere lezioak ematen dizkidalako diot, bidenabar... Frustrazioa? Norena, bere burua saldu duenarena urtean bi liburu ere irakurtzen ez dituztenen onspena irabazteko? Bere nortasun indibidualari uko egin dionarena, segituan “idazle kolektiboa” izatera pasatzeko? asteen behin bere burua/bere sinadura egunkarietan ikusi ezik zorabioak jota geratzen denarena? “militantzian” ezkutatuta bizi den idazlearena, bere porrotari aurre ez egiteko?

Begira, argi eta garbi esango dizut zer pentsatzen dudan: puta zikin bat naizela, idazle guztiak bezalaxe; eta aurkitzen baduzu ni gorrotatzeko arrazoi on bat, bada orduan poztu egingo naiz lortutako emaitzaz; zeren bestela pentsatu beharko nuke nik ere “nire lekua” aurkitu dudala, eta bezeroak nigana etortzeko beharrik sekula berriro izango ez dudala... Elkar bilatuko dugu, bai, eta elkarri txu egingo diogu aurpegira (poetika piska bat, erabat hilda ez gaudela baieztatzeko).

Azken aholkua: idazterakoan, pentsa une batez ez zaituztela inoiz irakurriko; horrela bakarrik lortu ahal izango duzu zu zeu izatea. Noski, aholku honek ez du balio idazle “niñatoarentzat”, nik baino askozaz gehiago dakienez gero (“puta inbidia”) eta saltzen duenez gero (“inbidia puta”).

Enfin, batzuek ez dakigu galtzen eta.

# ESTILO BERRIA

Protestatzeko, idazteko, bizitza biriketarik botatzeko estilo berria. Hitz gutxitan —zertarako aspertu (norbera eta gainerakoak) soberan dagoen estilo erretorikoaz?—. “Lo bueno, si breve, dos veces bueno”. Ez dut orriak eta orriak betetzeko obligaziorik.

\*\*\*

Idazle konprometitua. Ez dut ezer horren kontra. Baina, gogaikarri samarra irudituko litzaidake, munduan diren idazle guztiak (gutxi ez direnak, berariaz) “idazle konprometitutak” izango balira. Txakur-mota asko izatea ez al da gauza naturala...?

\*\*\*

Orain, \*\*\* salatu nahi dut. Misoginoa izateaz akusatzen dut. Baina, hala ere, argi eta garbi gera bedi haren misoginia ez dela ideologikoa, patologikoa baizik. Egun batean, haren ama hil eta gaitz hartatik sendatu zen. Hura izan zen amak haren alde egin zuen azkeneko aldia. Negarrez diotsuet zeren... ez dakit denborak lehengo nortasuna bihurtuko ez ote dion; hala balitz, den-dena izango zen elferrikakoa. Ikusten duzue? Ez du merezi hiltzea; beharbada, ezta zerbaitengatik hiltzea ere. Baina hauek hitzak baino ez dira. Nori axola? Niri ez behintzat... Txitikitatik ere esaten baitzuten apaizek nitaz: “Oso apatikoa da”. Bere helburua lortu ez duen borreroak halako iritzia agertzen baitu beti bere biktimari buruz: “Oso apatikoa da” —dio.

\*\*\*

Baliteke aurrerantzean nire libururik bat ere ez jartzea erdaraz berriro. Ni ere beldur naiz-eta burbuila honetatik kanpo zer aurkituko dudan... Euskaldun guztien beldur zaharra... Sarritan porrota ezkutatzeko txit baliagarria izan dena. Zein porrot? Herri batena... Gizaseme batena... Gizateria batena... Jainko batena... Natura batena...

\*\*\*

Unibertsoa. Hitz polita —mistikoa eta zientifikoa—. Haurtzarora bezain benedikatua. Itxaropena ekartzen digu-eta hil-egunerako. Ez gara konturatzen gure heriotza gainera datorkigunean baino. Eta orduan, bizi izan garela beste ezertaz konturatzeko astia baino ez dugu. Bizitza bat izan dugula (hala nola heriotza bat izango dugun). Tristura hemen geratzen direnentzakoa da. Hildakoarentzat, ahantzia... eta itxaropena: unibertsoa. Hitz polita —mistikoa eta zientifikoa—. Haurtzarora bezain benedikatua.

\*\*\*

Gerra. Eta ni gerra guztien aurka, gerra guztien alde. Besteren odola isuri duena madarikatu eta bedeinkatu egiten dut; besarkatu eta arbuiatu egiten dut. Gerrak, putatxoak bezain zaharrak eta sakratuak eta saihestezinak... Mutil zintzoa naizenez, ni gerra guztien aurka (nik diotsuek —eskua odolez zeharo zikin duen harakin honek—). Benetan, ez jardun horretan. Izan zintzoak, euliari hanka guztiak banan-banan erauzten dizkion haurtxoa bezala. Baina, ez izan zuen buruak zintzotzeko presarik (zahartzarora horretarako dago-eta).

\*\*\*

Ni naiz hamaika aurpegiko gizona, hamaika estilo izan duena. Nire nortasuna puntu nimiñoz osatuta dago (arte modernoaren garaiko maisu-lan esperpentikoa!). Hamaika bidetatik ibilia, inora iritsi gabea, bide guztiak abandonatu zituena... Hitz bat edo beste geratzen zait ordea; azken arnasa: erraz esaten da hori, kanaila! Zer dakizu zuk...? Barka, nik adina. Arrazoi duzu. Gure narkizismoak ez digu uzten, askotan, mundua (mina) besteekin erdibanatzen.

—Inguruan begiratu nuen —esan zuen— eta ez nuen ezer ikusi: soil-soilik mundua, bere sei mila milioi biztanleekin. Bakartasuna sentitzeko zer gehiago behar nuen?

\*\*\*

### SENTSAZIOA (Rimbaud)

Udako arrats urdinetan, joango naiz bide-zidorretatik zehar,  
Gariak mokokatuta, belar goiztiarra zanpatzera:  
Ameslari, sentituko dut horren freskura nire oinetan.  
Haizeari utziko diot nire buru hutsa bainatzen.

Ez dut hitz egingo, ez dut ezertan pentsatuko:  
Maitasun amaigabea, berriz, nire izpirituaz jabetuko da,  
Eta urrun joango naiz, oso urrun, buhame baten moduan,  
Izadian zehar —zoriontsu, emakume batekin bezala.

Martxoa, 1870.

\*\*\*

Kafkak bat-batean idazten omen zituen bere liburuak, ia-ia gau batean. Ez naiz harritzen, gaurko definizioen arabera ez baitzen “idazle profesionala”: ez baitzen literaturatik bizitzen. Lan egiten zuela esan nahi dut; ez zituen sosak literaturatik ateratzen alegia. Beraz, azkar ibili beharra zeukan; bestela, “Estilo Berria” bezalako liburuak idazten amaituko zukeen... Noski, nik ez dut ezer nire buruaren aurka (nitaz maiteminduta ez banago ere...).

\*\*\*

Pornografiak gizon ahulari jarritako beste lakio bat da. Eta ni oso gizon ahula naiz... Egia esan, lakio guztietatik pasatakoa naizela esan daiteke, horregatik daukat arima horren desitxuratua. Barkatuko nauzu.

\*\*\*

Euskaldunari gustatzen zaio adarra jotzea; hala ere, nik ez nuke esango euskalduna hironikoa denik: adar jotzea eta hironia antzekoak izan arren, bi gauza desberdin direlako (bigarrenak zibilizazio-maila piska bat eskatzen du).

\*\*\*

“Iritzi-artikuluak” eta antzekoak amaituak dira “Estilo Berria” liburuari esker. Lerro bakan batzuekin nahikoa da-eta. Gainerakoa: lastoa, alferrikako pisua, erretorika hutsa. Esaterako:

—Pinochet-en auzia?

—Izorra dadila.

Hurrengo kasua!!

\*\*\*

Ez, ez dut “inspirazioa” hiztegia bilatu nahi (garai batean, bai; baina orain, ez). Hiztegia hitz hilak dautzan hitz-hilerria iruditzen zait. Soinean daramadan bagajearekin nahikoa ez balitz... zer egingo genion, ba!

\*\*\*

Hogeita lau orduz lehenik, eta hogeita lau urtez gero, ordenagailuaren aurrean bizi izandako gizasemea. Liburu gizona (el hombre libro). Ausartasuna ala koldarkeria? Bietatik, noski (izan gaitezen eklektikoak). Ohituraren poderioz, bere pentsamendua baino azkarragoa izatera heldu zen, eta orduan, idazteari utzi zion (bulkadak idazterik ez dago-eta). Ordenagailua matxuraturik itzali zitzaionean, bera ere hil egin zen, bere sekretu guztiak berekin eramanez (denok bezala).

\*\*\*

Hiltzea besteei uzten diegun pena da. Bizidun bezala esaten dizuet, zeren hildako bezala zer uste dudán jakiteko, oraindik ere itxaron beharko duzue piska bat...

\*\*\*

«Misoginiari aurka egiteko, bere ama hilaz oroitzen zen». Ikusten duzuenek, batzuetan ez da dinamitarik behar mundua iraultzeko; nahikoa da maitasun piska bat...

\*\*\*

Lehenik, gutaz ahaztuko dira; gero, besteak besteez; eta azkenik, denak denetaz. Mundua horrela egina dago. Kontua ez da zuzena den ala ez; kontua da horrela dela, eta kito.

\*\*\*

Ordenagailuaren aurrean bizi zen gizasemeak pentsamendu bat begien aurretik hegan noiz pasako zain zirauen. Bat suertatzen zitzaionean, pentsamenduari hegalak moztu eta artxibo baten barruan sartzen zuen [pentsamendua], “.doc” sailkapean. Hegalak, berriz, jan egiten zituen. Eta mastekatu ahala, odola ahotik isurtzen zitzaion. Idazlearen gizatasuna halakoa da: basatia.

\*\*\*

### SENSATION (Rimbaud)

Par les soirs bleus d'été, j'irai dans les sentiers,  
Picoté par les blés, fouler l'herbe menue:  
Rêveur, j'en sentirai la fraîcheur à mes pieds.  
Je laisserai le vent baigner ma tête nue.

Je ne parlerai pas, je ne penserai rien:  
Mais l'amour infini me montera dans l'âme,  
Et j'irai loin, bien loin, comme un bohémien,  
Par la Nature, —heureux comme avec une femme.

Mars 1870.

\*\*\*

Egile-eskubideen jabetzak 80 urte irautea, hori bai lotsa! Norentzat ote da onuragarria, kultura monopolizatu nahi duten argitaletxe erraldoientzat ez bada? Neurri horrekin bat datozen idazleez ere lotsatu egiten naiz (laster, “pernada-eskubidea” ere eskatuko ez ote diguten beldur naiz, aristrokata malapartatu halakoek!). Berrogeita hamar urteko epea nahikoa eta sobera zen (Ingalaterran eta Estatu Batuetan bezala, esaterako). Kulturaren zabalkuntzari inoiz jarri zaion oztoporik okerrena. Hori bai lotsa!

\*\*\*

Gure euskal argitaletxe nagusiak badirudi barraskiloekin lehian ari direla. Bestela, ezin dut ulertu gaurko teknologiaz baliatzen hasteko zeren zain dauden. Hortxe ari dira den-dena modu tradizionalan argitaratzen, paperean alegia. Eta ondorioz, irakurleok dirutza handiak ordaindu beharra dauzkagu orri gutxiko liburu askotan makalak eskuratzeko. Non daukazue orain dela 4, 5, 10 edo 15 urte argitara emandako liburuak? Zergatik ez dituzue fondo zahar horiek CD-ROM batean eskaintzen? edo Internet-en, harpidetza baten truke? “marketing” irizpide hutsalak argudiatuta, zenbat liburu, idazle, itzultzaile baztertzen jarraitu behar duzue? benetan uste al duzue euskal argitalgintzak muga jo duela? zein irizpideren arabera, “salerosketen” irizpidearen arabera? A, tenpluak merkatariz bete zaizkigu...

\*\*\*

Telebistaren bidez heltzen zaigun informazioa ez da inoiz sinesgarria izango, herri-proiektuek informazio-bide horietan toki bat izan arte (puaj!). Bien bitartean, telebistatik datorkigukeen informazioa botereak aditzera emandako informazioa besterik ez da izango (informazio partziala, herrena, desitxuratua —des-informaziotzat ere har litekeena—). Gaur egungo telebistak eskaintzen digun informazioa benetakoa izan dadin, bestelako aukerekin kontrajartzea nahitaezkoa da, aukera desberdinetatik sortzen den emaitza bakar-bakarrik izan daitekeelako sinesgarria (puaj!)

\*\*\*

Itzulpenak jatorrizko hizkuntzatik egin behar dira, ados. Hala ere, zilegi da beste hizkuntza batzuek baliatu eta zubi-moduko lana egitea. Azken batean, garrantzitsuena azkeneko emaitza da. Zoritxarrez, snobismoa oso hedatuta dago. Esaterako, bati eta besteari galdetzen badiezu nortzuk diren gehien maite dituzten idazleak, hortxe hasiko dira zerrenda luzearen berri ematen: Cesar Pavese, Pessoa, Faulkner... Idazle horiek guztiak zein hizkuntzaren bidez ezagutu dituzten galdetzen badiezu, ordea, berehala erantzungo dizute gaztelaren bidez ezagutu dituztela, gehien-gehienak ez baitaude euskarara itzulita; eta daudenak, liburutxo bat edo beste, eta besterik ez (gure argitalgintzak “muga jo duen” beste froga bat). Beraz, gaztelera (edota beste edozein hizkuntza) idazle horiez gu maiteminarazteko bezain indartsua izan bada, zer dela-eta egon behar du “debekatuta” gaztelaratik italiar idazle bat, esaterako, itzultzea?

\*\*\*

Kalitateari dagokionez, liburuak Internet-en argitaratzeak onura baino ez dakar: liburua argitaratu eta gero, nahi adina zuzenketa eta aldaketa egin daitezkeelako. Hala da, bai. Internet-en dagoen liburua nahi duzun momentuan “atera” eta horren ordeztu bertsio hobetua sar daiteke, zuzenketa bat edo hamar mila zuzenketa eginik. Beraz, kalitateari dagokionez, liburuak Internet-en argitaratzeak onura baino ez dakar.

\*\*\*

Duela gutxi, Borges-en obra osoa aurkitu nuen liburu-denda batean. Hamar ale, oso ongi inprimatuta eta enkoadernatuta. Ale bakoitzaren prezioa, ordea, hamar mila pezetakoa zen. Hortaz, eta hamar ale zirenez, ehun mila pezeta ordaindu beharko lituzke Borges-en obra osoa eskuratu nahi lukeen irakurleak. Askok ezin izango genuke halako dirutza gastatu Borges-en liburu-bilduma osoa eskuratzeko; nahi, bai, baina ezin. Borges-en obra osoa CD-ROM batean bildu eta hamar mila pezetaren truke inork eskainiko balit, ordea, ba orduan bai, ahalegin bat eginda baietz lagun askok liburua eskuratu. Ale guztiak ordenagailuan irakurri beharko genituzkeela? Tira, zer egingo geniokeen, ba. Okerragoa da Borges-en obra osoa eskuratu gabe geratzea, nahiko dirubaliabiderik ez izateagatik. Gainera, bi argitalpen-mota horiek bateragarriak dirateke, hau da, biak elkarrekin merkaturatzeko ez dut uste oztoporik dagokeenik.

\*\*\*

### SENTSAZIOA (Rimbaud)

Udako arrats-urdin, bideetan zehar,  
Gari-mokokadak, goiz-belarra zanpa:  
Ameslari, hotz-sentsazioa oinetan.  
Haizeak nire buru erantzia laztan.

Ez dut hitz egingo, ez dut pentsatuko:  
Nire jabe, maitasun amaigabea  
Ta urrun, oso urrun bihar, ijito,  
Eme batekin —pozik, naturan zehar.

Martxoa, 1870.

\*\*\*

Literaturan zakarrak diren ideiak, kontzeptuak eta adierazpideak oro baztertu egin behar dira, kultura “suburbanoan” ez amiltzeko. Gure hiriak grafittiz beteta daude, gizartearen estetikak porrot egin duenaren seinale. Behintzat, izan gaitezen gu, idazleok, estetikaren uharteak bezalakoak; eskain dezagun jarraitzeko moduko eredu bat. Izan gaitezen burbuletan flotatzen duten ezinezkoak (bandera patetiko bat hondamendiaren erdian).

\*\*\*

Nork ez du bere burua noizbait espaziorantz jaso, hildako maitagarri baten bila? nork ez du “hortxe” zegoen inpresioa inoiz izan? Unibertsoa, ia-ia eskuez uki dezakegun unibertso ez-material hau...

\*\*\*

Idazlea erroskatik pasatako irakurlea dela pentsatu dut beti; une honetan, ordea, zalantza egiten dut. Baliteke, hamar mila liburu irakurrita ere, irakurleak orri bakar bat ere idazteko premiarik ez sentitzea. Beharbada, gakoa hor dago: “premia” hitzaren barnean. Premia zerk sortzen duen? Kasuan kasu ikusi beharko litzateke hori... Edonola ere, idazlea erroskatik pasatako irakurlea izatea ez litzateke inolaz ere harrigarria izango.

\*\*\*

Kursaala, mila eta bostehun mila milioiko arte-lana. Loiola auzo txiro eta abandonatua zeharkatzen dudanean, “hau lotsa” esaten dut nire artean. Kontua ez da polita edo itsusia den; kontua da halako dirutza eraikin bakarrean xahutzeko eskubiderik ba ote genuen (barkatu, ba ote zuten). Langabe-kopurua eta auzo eta eraikin askoren egoera tamalgarria ikusita, gizaseme asko ezetz gaude. Kursaalaren edertasunari dagokionez, onartu behar dut, zera, gauez, argi guztiak piztuta dituela, eraikinak benetan erakartzen nauela. Egunez, ordea, eraikina estaltzeko erabili duten kristal-motak gogorik gabe uzten nau (WC publikoetan jarri ohi zuten kristal lodi eta opako bera gogorazten dit-eta). Pasadizo gisa, obraren bultzatzaile sutsuenetarikoa izan den Odon Elorzak egindako adierazpen batzuk ekarriko ditut hizpidera, gutxi gora-behera horrela zioten-eta: “Ez dakit eraikinak ondo ala gaizki geratuko den, baina badakit arriskuari aurre egitea merezi duela”. Mila eta bostehun milioiak Odon Elorza alkatearenak balira, halako adierazpenak ondo irudituko litzaizkidake; baina mila eta bostehun milioiak herritarrek jarri dituztenez, ardura gutxiko eta erantzukizun eskaseko gizasemetzat jo behar dut Odon Elorza alkatea. Behintzat, ager bedi berak bultzatutako proiektuaren zale itsu eta amorratua bailitzan, bidearen erdian zalantzarik nimiñoena erakutsi gabe alegia —maila oneko politikariak egingo lukeen bezala.

\*\*\*

«Nork irakurtzen ditu idazten duten itzultzaileek idazten dituzten liburuak?» Eta nork irakurtzen ditu, ba, liburuak plazaratzen dituzten argitaratzaileek idazten dituzten liburuak? Egia esan, nork irakurtzen du herri honetan?

\*\*\*

Ez ditut gogoko sare itxiak osatzen dituzten idazle eta itzultzaileak, elkarri koipea ematen aritzea berez itsusi samarra da-eta. Euskal Herrian sarritan gertatzen den gauza (baita kanpoan ere). Eta ez da harritzekoa, jakinik, nola gustatzen zaigun euskaldunoi taldeka ibiltzea.

\*\*\*

“Goenkale” milagarren atalera iritsi da. Niretzat ezer gutxi da Goenkale; ez du inongo arrastorik utzi nigan, ezta utziko ere. Ni, noski, ez naiz “euskal gizartea”, euskal gizartearen tanta tipi bat baizik. Egia baldin bada Goenkale benetan arrakastatsua dela eta jarraitzaile asko eta asko dituela, etor bitez beste mila Goenkale (puaj!). Dena den, hamar mila etorrita ere, niretzat ezer gutxi izaten jarraituko du (ez da nire errua Bartleby Izkribatzailea maite izatea).

\*\*\*

Hamaika tokitan egotea, inon ez egotea da. Halakoa da itzultzailearen bidaia. Itzulpen tekniko/komertzialak = suntsipen tekniko/komertzialak. Zabor-inpresioa, Euskal Herri arbuiatu honetan. Azkenik, gizarteak harrapatzen zaitu eta bull-doggerren antzera pasatzen zaizu gainetik. Edonoren esku ez dago, ez, garaiz apartatzen jakitea...

\*\*\*

Artea ezin da probokazio hutsa izan; bestela, legezainak artistak izango lirateke.

\*\*\*

Txertoan argitara eman nituen liburu guztiak jendaurrean gaitzetsi eta arbuiatu egiten ditut.

\*\*\*

Kundera, jakina denez, beti aritu da kexaka berak idatzitako liburuak itzuli dituzten itzultzaileak direla-ta. Baina itzultzaile “kazkar” horiengatik izan ez balitz, European inor gutxik jakingo zuen Kundera nor den, eta bera ere baliteke inoiz ez jakitea idazle benetan interesgarria zenik (bere herrian bertan ez baitut uste horrenbesteko oihartzuna lortuko zuenik). Gainera, itzulpen “kazkar” horiek eman zioten ospeagatik izan ez balitz, idazteko gai izaten jarraituko zukeen? edo idazle askori gertatu zaien bezala, indiferentziaz jota agortuko zatekeen... hoztasunez inguratuta?).

\*\*\*

Goza gaitezen esku artean dugun une honetaz. Zeren biharrak ekarriko digu ekarri behar diguna (horretaz nork du zalantzarik?). Bestela ere, etorriko zaigu heriotza, gure amets guztiak apurtzera, edota lekuz aldatzera. Bai, goza gaitezen begi aurrean dugun une honetaz. Eta utz diezaigun biharrari gutaz bihar arduratzen.

# LETRAS ROCK & ROLL

Otra página. Beste leiho bat. Asómate si no tienes nada mejor que hacer. Pero no busques en ella una solución a tus problemas. Canciones horteras para mis seguidores horteras. Sentimiento que va creciendo imparable. Está bien. ¿Un error? ¡Vale: la vida pasa rápido! No se puede malgastar un día entero hablando de lo mismo. Es lo mejor de este lugar, de esta página. Que pasa también rápido. Y no exige nada a cambio. ¡Vaya una canción! Una canción hortera, irreverente y al mismo tiempo cuasi irrevolucionaria. Una actitud. Sí, continúo liando un cigarrillo de tanto en cuanto. ¿No os importa, verdad?

\*\*\*

Menea la mente, taza de váter. Demuéstrame que estás viva. Y si no, que te llenen de m... Es sólo una manera de expresarse. «Una técnica». Un modo de trabajarse esa técnica. Se puede hacer de vientre de muchas formas. No digo que la mía sea la mejor porque, entre otras razones, no me gusta hacer de vientre. Sí, me has oído bien, taza llena de m... No me gusta hacer de vientre. Y anda y que te enm... No, no es nada personal. Pero me sale del agujero del c... darte la bienvenida del único modo que sé. New York está más lejos de lo que parece, Pitagórica taza de váter. La noche de los crines verdes renace en el cenicero de la sacrosanta legión de los “recordes” que nunca acaban de desaparecer del todo. Una manera de expresarse. Una apestosa manera de expulsar los excrementos. Una cagona forma de ser. Una forma de cagar. Y de cagarla. Taza de váter enmierdada.

\*\*\*

Re-no-van-do. Sí. Así es. Re-no-var-se o morir. Carótides. Pijotudo. Nostálgico. Mierdálgico. Sentimeltálgico. Drogálgico. Fitopálgico. Traductólogo fitopálgico erensicojotijado. Tradúcelo a la salud de tu p. m. (no, no se trata de la hora inglesa, mamonazo). ¿Es suficiente? Muy bien, narizotas. Siempre pensé que esas narices te darían problemas. Porque tú tienes un problema de la h... con esas narices. Un problema “de narices”, narizotas. “¡Vaya una berenjena, amigo tuyo!” ¡Sí señor! A mí también me gusta el rock&roll. Lo llevo en la bragueta. Tío mierda. “Hijoputazo”.

\*\*\*

Os lo dije, la guitarra de Yoguinder era impresionante. Que por cierto, era hijo del famoso borracho —perdón—, del famoso bajo Guin Guin Boyn. Que tocó con el no menos famoso grupo Bwin bwin Gleyne Foaw. Que causaron gran furor en la época de los cuatricochientos. Una feliz época en la que los gilipollas como tú me daban de comer a mí, el “Elvis” de los radiofónicos “enteraos” y “enteradillos”, que de alguna manera, nos las habíamos arreglado para chapurrear en un inglés que hubiera encendido (y que encendió) la luz roja en la Academia de la Lengua Angloxa-Jónica y que puso la carne de gallinota a más de un inglés, por muy palurdete que tuviera el culete.

\*\*\*

Muy bien, capulletes. Vamos a terminar este primer capítulo con un fantástico “tema” de Don Capullo el Temible. Que además de desafinar la hostia, tuvo a bien montarse una casa de des-gra(v)bación que continuó con su ardua tarea de joder las

orejeras de todos los hijos de familias más o menos bien nacidas, cosa que aunque hubo de pasar largo tiempo, al final, acabamos por enterarnos incluso los que éramos sordos. Porque eran tan “mandingas”, tan “basurs”, tan “ínfims”... Sí, ya sé que te gusta. Pero yo no puedo hacer nada. A fin de cuentas, yo vivo de ti. Así es que lo único que puedo hacer es darte la razón. Y cantarte el siguiente tema. Que para eso me pagas... Y ahora, quítate las bragas.

\*\*\*

Es “traumático”. No lo puedo evitar. Pero me gustan, siempre me gustaron las putas. Por eso, al final de mi vida, decidí fundar una familia. No, no quiero escandalizar a nadie. Y menos a las gallinas. Porque en este gallinero, todos tenemos derecho a caldo. Aunque sea de Estarlux. Oye, ese huevo es mío. Así que te agradecería —un huevo— que por favor seas razonable y dejes en paz ese huevo que a fin de cuentas me pertenece. Frank Sinatra. Sí. Un gran tipo. Con un gran coche. Cosa que yo nunca tuve. Y ahora, vamos a hablar del amor. En una granja, cómo no, para pollos. Pollos industriales. Porque uno nunca sabe cuándo va a surgir el amor. Y a fin de cuentas, ¿por qué no en una granja para pollos/as? No hay nada como una buena polla para impulsar el amor y la solidaridad entre pollas/os. No es nada personal (¿hay alguien infalible?). Esta noche tengo que hacerlo lo mejor posible. Es una gran responsabilidad (el público, los derechos de autor, el grupo musical familiar...). Con tantas cosas no se puede ni soñar (follar). Soñaba (follaba) antes, cuanto iba a Barcelona. Y una casa semiderruida era un palacio para príncipes mugrientos. Más atrás. Por ejemplo, cómics. En las Ramblas. Y demás. Nunca hablé de ellas. O incluso, Ibiza. O la virginidad perdida en una vivienda de una manzana de casas barcelonesas. En peu pute. Pero no se portó mal. Por otro lado, yo no merecía más. Mira. Hoy es el cumpleaños de nuestra madre, que murió hace poco. Y esta tristeza que siento es una de las pocas cosas que me parecen reales. Lo demás, como un robo a navajazo en esa merde Madrileña que al cabo de cuarenta años sólo ha dado para convertir a la capital de Spain en una de las ciudades más peligrosas de Europa, motivo de orgullo de los sucesivos ministros de interior de ese lejano país que de lo contrario nunca hubieran sabido cómo cojones justificar el gasto en energía policial y judicial, que a fin de cuentas es lo mismo. Feliz Navidad, piojosos/as.

\*\*\*

Un instante de nada. Escucha por un instante de nada. Poesía sin esfuerzo. Poesía sin café. ¡Cómo quisiera escapar otra vez de casa! Con la botella de vino y ese maldito salchichón que tanto esfuerzo, sudor y lágrimas costó a mis progenitores! Tal vez, no mereció la pena luchar tanto y tan duro por mí. Pero, ¿y por qué no? ¿Quién va a juzgarme? ¿Un intelectual? Esos hace tiempo que averiguaron dónde estaba la gallina de los huevos de oro (volvemos otra vez a los huevos y a las gallinas y a los pollos y a las pollas...). ¡Ah, putilla, cómo me gustas!

\*\*\*

¡Si fuera o si al menos si hubiera sido...! Esta batería desgastada, descastada, desafinada y mía...! ¡Toca, toca fuerte! ¡Alma mía! ¡Toca el tiempo todo antes de que se desgaste en mi piel quemada! ¡Toca fuerte, antes de que la escasa poesía que me ahoga

salga de mí, y me convierta en un buen vecino, querido, respetado, al uso...! Déjame sentirme una vez más, por última vez, otro...

\*\*\*

Y no dejes nunca de cantar... Juventud mía, amistades deslustradas que habéis desaprovechado vuestro precioso tiempo conmigo... Y esa llamada, que nunca llegó a realizarse y que podría haberlo cambiado todo... “Toques” de piedra que desean tus labios de fuego. Quién no se equivoca... Ahora, eres la esposa de un cocinero... ¡Buen sabor! ¡Buenos sentimientos culinarios! Cerca del mar... ser una langosta o no ser nada... a quién le importa... El mar arrojaba “detritus” de comida salvaje, contaminada que tragábamos sin rechistar... Era un modo de vivir. Luego, íbamos al Arenal a manifestarnos por el derecho al verdor de Barakaldo... Sigo echando de menos aquellas reuniones... que aprovechaba para ahondar en mis ocultos deseos... Pronto, no sabré quién traduce y quién escribe. Sólo soy eso, un traductor que gusta de escribir... Mi origen es sencillo, plano y rústico. Pasar la noche entregado al delirio, esperando tu llamada/mamada, ¡oh mujer infiel...! Mis venas rezuman aún la savia de tu sangre.

\*\*\*

Coge la moto y lánzate a la calle, a buscar lo de siempre, tu vulgaridad, tu viejo deseo innato, así... Las dos de la madrugada y los horteras campan. “Maite banauzu, zergatik ez nauzu hartzen? Maite banauzu, zergatik abiatzen zara ni gabe? New York, zu gabe, hain da erraldoia; zurekin, hain da txikia... Maite banauzu, zergatik ez nauzu hartzen? zergatik abiatzen zara ni gabe?” Estas calles de longitud total, de creencia justa y matemática... Esaidazu asko maite nauzula. Y que te perpetuas en esa longitud, en esa creencia justa, matemática... Palabras de anglosajón que no mueren en ti... Ene adiskidea... // Falta zait, pub bat, Alde Zaharrear, kale ilun eta estu batean, Alde Zaharrear... Noiz hasten da maitasuna lehen aldiz deitzen? Donostiako Alde Zaharreko kaleska batean... Utzidazu nor zaren zuri gogoratzen... Eta gero, bota nazazu zure ondotik. Donostiako Alde Zaharreko kalezulo batean. Harrapa nazazu, zu gabe ez bainaiz inor. Zu gabe ez bainaiz inor. ... Oi, Donostiako Alde Zaharreko kalezulo batean... Aquella librería en la que entramos cuando nuestra madre agonizaba en un buen Hospital público (así debe ser) y elegimos un título al azar —el último— que no habríamos de leer ya otro igual porque a partir de aquél día ya nada sería igual. Ese libro podría cambiar todos los días de título, de argumento, de prosa, de autor, de tapas y de lector. Y no sería igual. Ese libro no será nunca jamás el mismo porque su día nunca habrá de ser el mismo. Retrocedes un tema; un capítulo anterior. ¿Qué buscas en él? ¿Un sentimiento caduco y nostálgico? Si de veras quieres retroceder tendrás que dar marcha atrás hasta el siglo XXI antes del Cristo y atravesar la Rivera de Navarra y el Irun del Bidasoa y así hasta los orígenes del apellido que echa humo como si un Gernika se tratara. No tengo nada que enseñar. Aún no soy viejo. Y además, soy nada. No voy a darte una lección. No voy a darte nada. Tampoco una referencia. Para que te orientes. Para que te apoyes en ella. Vive como yo he tenido que vivir. No es una venganza. No es nada. Por eso te lo doy. Lo único que he tenido. Subcultura del siglo XX-XXI. Que parece algo. Un espejismo en la Montaña Tecnológica, antesala medieval de esta civilización palurda. Y así, hasta que la luna caiga (llega un momento en que la luna cae siempre. Y cuando eso ocurre, hace daño). Así el dolor transcurre urbano con olor a periódico y cazuelitas “de a quinientas”. No supongas suposiciones; supón supositorios. Un ejemplo de ciudad imperfecta que transcurre en medio de una poesía muerta y yo no

tengo “fuelle” para cambiar la realidad y las estrellas son salidas muertas a la nada que no embellecen esta ciudad calientapollas, drogata, irreconocible e irreconciliable. La muerte vino de visita y luego hubo un cumpleaños y un recuerdo emocionado y una nada que se amontonó en las palabras amontonadas de un archivo (de texto — amontillado—).

\*\*\*

Demasiado misterioso. Y demasiado borracho. Algo más abierto, más sencillo. ¡No, por favor! Las olas que rompen contra el universo de la costa vasca. Así, quieto... Hendaia... Faunos de la playa... Mentas que sonrían al mar... Sombra inquieta de la sombra en los árboles... Y de ahí, una fuente sin nombre, sin origen, sin patria. Donde no es necesario pertenecer a ningún sitio porque no hay sed que pueda apagar... Melodías de un bosque abocado al olvido y a la destrucción... Sin presencias capaces de entender la verdadera razón de esa espesura. La Gran Ciudad envía un claro mensaje... que se pierde en ese laberinto de calles y almacén, como un día nublado revoloteó sobre nuestros recuerdos, al atravesar unas calles de la Gran Ciudad Desierta o Poblada, qué más da... El río atraviesa la ciudad quebrada y nuestras agotadas reservas rotas en la orilla de ese gran Amor que rehúye el recuerdo y el fracaso, en las islas de un río, y un lago, y la noche similar a un recuerdo mórbido de placer y nostalgia, de niñez e infancia, quebrado, y los labios “moreak”, y un beso mortal, absurdo acerca del ansia de vivir, del fracaso de vivir, y arqueas las cejas sin saber por qué, en el castillo de la Urbe *sauvage* donde un grupo de poetas malgasta su vida sin pararse a pensar en su significado, con dolor sordo y carcomido... Nuestra madre hace ya mucho tiempo que lo averiguó y comprendió y perdonó... Mientras, el Gran Poeta pequeño-burgés transita orgulloso de su necesidad... Cuidado... Ahora que el instante se ha tornado minúsculo y que el segundo desafía al minuto y que el tiempo rompe su máscara abocada al diluvio del tiempo y de las leyes mágicas, un castañetear de almas devuelve a la realidad antagónica y trivial su armonía de sonidos. Vacío de nada. ¿Hasta cuándo? ¿y con qué fin?

\*\*\*

No quieras saber cuál será el día y la hora en que la Muerte ponga en tu rostro su impronta y su ceniza. ¡No lo quieras saber! Porque el día que lo sepas, ya estarás muerto. ¡Muerto! No, no lo quieras saber, ni desear para ti ni para nadie. Renuncia a la ambición y abre los ojos al misterio. Escucha a tu corazón cuando no sepas el valor, las palabras del rezo. Y si la mística tradicional hace ya tiempo que en ti muriera, escucha a tu voz interior, a los latidos y consejos de tu corazón joven y viejo, y aprende que nunca hay que llamar a la muerte en aras de la ambición y de los oscuros deseos. Y no quieras saber cuál será el día, y la hora, y el rostro del día de tu muerte. ¡No lo quieras saber!

GAUTU ARTE \* HASTA ROMPER EL  
DÍA

«Ia ez zegoen zer eginik. Parasitoen antzera bizi zen». Ez, barkatu. Bizi nintzen. Ez dut-eta nire burua ezkutatu nahi. Gainera, literatur-baliabide hori guztiz zaharkiturik dago. Gauza motzak maite ditut. Eta ez dakit luzaro eusten... hasieran ilusioz abiarazitako proiektuei. Batzuetan, agorturik sentitzen naiz barrutik. Den-dena amaitu izan balitz bezala. Zuek, euskaldunok, ulertzen ez duzuen guztia baztertzen ohituta zaudete, piska bat basatiak izaten jarraitzen duzuelako. Bai, kolpatu nahi zaituztet, nire mailuaz. Eta nire sentipenetatik, zuei eradan. Gaur, izenbururik gabeko liburu baten aurrean nago. Apur bat jota, apur bat edanda. Emozioak gogoratu beharra dauzkate, nolakoak ziren urrutitik bederen ostera ere sentitzeko. Hilda bezala nago. Bizitzak hainbeste une ditu... Ni denak bezalakoa naiz. Poza, melankolia, pena, nahasmendua... Denetik sentitzeko gauza naiz, noski. Gaur, une honen aurrean, animorik eza nagusitu da nitaz. Baina uneak oso motzak dira, eta bizitza oso luzea. Beraz, ziur nago ahultasun-une hau barkatuko didazuela.

\*\*\*

Orain dela denbora asko gertatu zen. Zer? Bada, hori. Denok dakiguna... Dena eta ezer ez. «Hildakoek hegan egiten zuten zeru odoleztatuan zehar». Guk, begiradaz, jarraitu egiten genien. Oraindik ez ginen hildakoak. Beraz, ez genekien hegan egiten — ezin genuen, gainera—. Heriotza paradisua edo infernua izan daiteke, norberaren ametsen arabera. Zer amesteko gai zaren, horixe eskuratu. Beste mundua, dauzkagun ametsetan daramagu. Zapata-zoletan pilatu zaigun hautsa gutaz mintzatzen da. Ulertzeko, nahikoa da piska bat bidaiaria izatea, edota... guztiz hilda ez egotea.

\*\*\*

Euskal Herrian denak ez dira modu berean bustitu. Iraultzaile handiak badira, oraindik kolpe-zorririk egin ez dutenak lanean; edota bat ere ikasten ez duten ikasle sutsuak (horiek ere alferrontzi ederrak!); eta Borges euskaraz ulertzeko gai ez diren euskaltzale ustez amorratuak; edota Bartleby, Saramago eta Céline ezezagun dituzten euskal irakurle itxurati asko, besteekin oso zorrotzak eta euren buruarekin oso eskuzabalak denak. Bai, Euskal Herrian urrea eta latoia nahasturik dabilta. Tori, har itzazu nire eguzkitako betaurrekoak, ea laguntzen dizuten begiko lausoa... barreiatzen.

\*\*\*

Azken boladan, gertatu zaidan gauzarik mingarrienera bat “Marjinalia Bilduma”ko liburuak dohainik jaisteko aukera kentzea izan da. Baina ni ez naiz funtzionaria, ez unibertsitatean ez euskal administrazioan. Beraz, hilero-hilero, soldata bilatu beharra daukat, baita harri azpitikan ere. Askotan ilusioak ustel ateratzen badira ere, saiatu beharra dago. Edozer —amore ematea iragartzen duen trapu zuria atera izan ezik—. Jende ausarta maite dut, ez indartsuekin bat egiten duen gizarajo ahula ez taldearen barruan indartzen den koitadu indargea.

\*\*\*

Te regalo un dulce despertar. Y si mi humilde cibernética te ayuda en algo, yo te la cedo de mil amores. Mis cimientos son cenizas que se lleva la brisa ligera del poniente que arremete comedida en su azaroso vagar, que nunca cesa. La noche se abre.

Basta escuchar y permanecer atentos. Ante el teclado, soy el músico que toda mi vida deseé ser. El artista autodidacta que busca por sí solo cuanto necesario es para el misterio de la creación. Llevo por delante mi penuria y mi gloria acechando para el día siguiente, por si acaso. Y proclamo, reivindicó, el jazz escrito, la literatura jazz, el instante blues del escritor aciago y proclibe a su caída, con sus defectos y su armonía y su encanto de minorías. A veces, quisiera que las noches no se acabaran nunca. A la sombra del árbol del «hau» —un momento que me estremecerá—. Platillos de noche alada. Y echo en falta, acaso, más música, más decibelios. Unas buenas orejeras —auriculares— para dejar dormir al bueno de mi vecino. Sí, la noche está soltándose el pelo. Y mañana será un día de duro y dulce despertar, cuando vea la montaña acumulada en la vigilia acaecida, sorpresiva —como siempre—. Me gusta esta libertad sin complejos, sin ataduras, sin ideologías y sin compromisos. La mujer fatal de una fatal literatura de un pueblo fatal. Todo se reduce a eso: a la fatalidad y vanalidad y demás “-aladidades”. Y ya que se me propone, ¿qué tal un Aladino alado surgiendo de esta noche de hadas y campanitas pardas?

\*\*\*

Angeluzorrotza zen haren begirada. Eta aurrean zuen zeruak ez zion ulertzen laguntzen. Zeruko kolore suabeak laket zituen ordea. Zeru zenbakiduna zen —zeren gauza guztiek dute zenbaki bat—. Zeinadura egin zuen, sinestuna ez bazen ere. Gero, Quebec-eko zerua irudikatzen saiatu zen. Basoak, mila hosto, hazitako belarra eta otsoen itzal arinak ikuskatu zituen. Belardiak eskergak ziren. Baserritar batek puzkailuari eragiten zion. Eta bazirudien lurak erantzuten ziola. Lurralde sorginduta zegoen; baita ni ere. Lurralde urrez josita zegoen. Non? Beno, bada, hortxe zegoen gakoa. Aurkitu beharra zegoen! Bestela, nori axola? Lautada abereek janda zeukaten. Lehenbizikoz, ardiak; bigarrenez, ganadu larriak. Azkenik, industria-gizonak eta injineruak eta ekonomistak eta teknokratak (XXI. mendeko izurritea!). Bestela, franko politte izango zen, bada! Esperimentatu beharra zegoen. Espero izatekoa zenez... Agustindar errekoletoa aspaldian hilak ziren. Zer demontre! Hodeiak berunezkoak ziren eta lurraldeko biztanle guztien besahezurrak hautsita zeuden. Hutsa! Eskutitz bat bidali behar nuen. Ta, handik gutxira, milaka eskutitz ziren, zain nituenak. Seiluak aurkitzea zen zailena. Bestela ere... Zubiadarra eta ostadarra hodei beretik eroritako bi tanta ziren. Ez dakit zergatik baina Gabriel Arestiz oroitzen nintzen. Ez, ordea, bera maite nuelako! Biok bide berea ibili genuelako baizik! Zuk, baina, jarrai ezazu hor eserita, lasai, paisajeari begira patxadaz, zure aulkiari josita. Utzidazu niri zu entretenitzeko ardura. Egia esan, ez dakit zer egin nahi dudán. Zauria zornatu egiten bazait, ez zaitut nigandik hurbil nahi. Zorrotza baitzara, hitzek zirikatzen zaituztenean. Eta ez dut orri honetatik atera nahi! Ni zotzeko sagardoa bezalakoa naiz: sasoirik sasoi baino sortzen ez dena. Klarinete burlatiaren parekoa naiz. Eta ez dut orri honetatik atera nahi! Zorrozkailua besterik ez dut nahi, burmuinetatik dabilzkidan ideiei punta ateratzeko. Arrantzalea ere banaiz, eta deriba-sareez baliatzen naiz nire buruko itsasoan igeriz dabiltzan hitzak harrapatzeko. Oi, zeinen gustura nagoen! Barka, benetan, nire liburuak salgai jartzeagatik. Nire buruari inoiz egin diodan laidorik itsusiena izan da hori. Baina, tira, zuek badakizue nolakoak garen gu, pobreok... Pai-la-zo hu-tsak!

\*\*\*

La noche estaba perfumada. La Noche de los Cuchillos Largos. Había una sala llena de gente que no tenía prisa. Y las palabras flotaban mudas en los techos decorados

con extraordinarias representaciones clásicas y modernas. Era la sacristía de la noche y algo había que zahería mi *bondat* y entonces yo no era yo sino alguien que decía cosas que yo no quería decir. Tampoco deseaba salir de esa página. Y me gustaban las palabras que encontraba en ella. Era algo así como un ser sacrílego herido por un temblor de flechas. Y cada vez que lanzaba una ojeada a la hoja, era como si encontrara una inspiración agazapada tras de cada término. Había un no sé qué de sadismo en aquella procesión de palabras acumuladas, todas ellas en su página. Debería contaros mi saga particular, pero para eso está la televisión pública. De todas maneras, no era una cuestión de personalidad. Ni de imaginación. Ni nada que pudiera solucionarse por medio de aburridos guiones lineales y no lineales. Tenía un cierto picor en el ombligo y procuraba mitigarlo con el mismo tenedor con el que torturaba a mi pedazo preferido de muslo de pollo frito. Aquí reventó el misterio del lago. Y ya no me hizo falta mirar en las palabras y en las páginas caducas de un apolillado diccionario. Quería estar solo. Con mis admiradoras. Y enseñarles cuan puro y casto puedo llegar a ser, pese a mi enfermiza afición a la pornografía. Sí, ya sé que has estudiado mucho y descubierto ADN's ocultos y un sin fin de tonterías que la humanidad nunca olvidará, pero... Sin una buena guía de música, no vamos a ninguna parte. Hay que personalizar el instante. Tú, por ejemplo, interpretas ese tema al piano y yo, al teclado (de mi ordenador), te sigo y te acompaño. Eso es el futuro. Y lo demás, pamplinas futuristas sin futuro. Una delicadeza pasmosa, soberbia, insospechada que flota en lo más superficial de mi propuesta y la piedad es músculo deshecho y no se pierde por otra cosa que por no ganar. Así de simple. Mi piedad es mi piedra que palpita indiscreta, insolidaria, en esta noche de guata y perfil de jarrón indeseable. Y mi pierna piensa. Y mis animales fallecen de hambre, pero satisfechos con la última píldora metálica. Y recuerdo, hace ya muchos años, una mujer que se dejaba acariciar y era como acariciar un trozo de carne vestido. Ésa es la diferencia. Leer o sentir. ¡Que las ratas abandonen el barco! Sí, el Titanic de mi prosa se hunde. No me preguntes quién soy. Yo no tengo carnet ideológico ni militante. Me conformo. ¿Un conformista? Sí, con ser la sombra de tu mierda pacífica y acomodada. No te confundas. No me confundas. Si tú eres un ratón de calles y de bibliotecas, yo soy un cepo de ratones y de calles y de bibliotecas. En el fondo, eso es lo más importante: saber por dónde salir. Y admitir que, de una noche, lo mejor que puedes sacar en claro, son tres o cuatro folios que no vas a borrar, sino a añadir a la lista, al último berenjenal, y a ofrecer a ese mórbido espectro que eres tú.

# AHAZTUTAKO HITZAK

«Kaixo» esan nion espaloian eserita zegoen neskari.  
«Ke te jodan» erantzun zidan.  
Egun bat ospatzen ari ginen, edo antzeko zerbait.  
Ni, dena den, lasai nengoen; alkoholaz ondo jantzita, alegia (kulturaz ezin esan gauza bera —baina horrek ez zion inori axola, zeren begibakarra itsuen erresuman...).

Euria ari zuen.  
«Nola duzu izena?» saiatu nintzen berriro.  
«Euri», erantzun zidan hizlabur.  
«Izen polita» erantzun nion euritakoari eta irriño bati nola edo hala eutsiz. «Nork jarri zizun, aitak edo amak?»  
«Biek, nik uste».  
«Hortaz», jarraitu nuen apur bat pozointsu, «biak poetak ziren».  
«Aitak burdindegia batean egiten zuen lan eta amak Eusko Jaurlaritzako Industria-, Nekazaritza- eta Arrantza-Saileko azpisail batean. Gasteizen, uste dut. Zeren urteak baitira ez dugula elkar ikusi».  
«Dibortzio-estatistikaren aldekoak izan zirela esan nahi duzu?»  
«Horixe bera», Eurik.  
«Zurekin hitz egin daiteke», nik.  
«Ezer ordaindu gabe, gainera. Putekin ez da gauza bera».  
«Ez pentsa».  
«Zer esan nahi duzu?», Eurik.  
«Ahaztu», nik.

Ardi-txakur arrazako espektro batek hanka jaso eta txiza egiten hasi zen Euri eta biok eserita geunden tokitik hurbil.  
«Txakur polita» bota nion zerbait esan beharrez. Berak, ordea, erantzuteko neke ez zuen hartu; sorbadak jasotzera mugatu zen-eta.  
«Bere lurraldea markatzen ariko zen ziurraski» esan zuen Eurik handik bost minutura-edo, jada txakur-arrastorik ez zegoenean.  
«Nork?» galdegin nion nahastuta.  
«Txakurrak».  
Bergia jaso eta mutil batzuk ikusi nituen txiza egiten horma baten aurrean.  
«Horiek ere bai».  
Eurik, orduan, lehen aldiz begietara zuzen begiratu zidan.  
«Estás loco», esan zuen ezkerreko ditiari hatz egiten, distrautuki.  
«Hori bera uste zuen nire ama gaixoak», nik.  
«Hilik dago...?» hasi zen Euri halako doinu urrikalgarri barregarri batez.  
«Ez, ez» lehiatu nintzen erantzutera. «Gipuzkoako Psikiatrikoan dago, besterik ez», erantzun nion axolagabe.  
«Eta ondo dago?» galdegin zidan, oraingoan eskuineko ditiaren hazkura arinduz.  
«Egunean lau aldiz ematen diote jaten», nik.  
«Pottolo samar egongo da orduan», Eurik.  
«Beti egon zen pottolo samar, bai».

Bi minutuz-edo ez genion elkarri ezer esan. Baina gure edalontziak hutsik zeudela konturatu ginenean, berriketarako gogoia piztu zitzaigun osteria ere:  
«Zerbait edan nahi?»  
«Herriko patxarana» erantzun zidan.  
Nik ez nuen errata zuzentzeko lanik hartu, ez bainuen uste errata zenik (errata bazen ere). Jaiki eta erregai bila joan nintzen.  
Itzuli nintzenean, jada ez zegoen.

(Amaiera)

\*\*\*

Ordubete falta zen. Ezertarako ez. Indiferentzia hutsez beharbada. Atea aurpegi-aurpegiaren ixten dizutenean bezala. Nire estiloa, esaterako, sinplea da, baina sofistikuaren sinplekeria are gorrotagarriagoa da. Gu, denok, marioneta beldurgarri batek gauez idatzitako poema zoragarria gara. Eta aurrean ez duzun norbaiti «Barkatu» esaten diozunean, hildako amari berpizteko esatea bezain alferrikakoa da. Gauza batzuek ezertarako balio izatekotan, norberak bakarrik aurki dezake misterioa. Beharbada hegalak falta zaizkigu, eta horregatik ibiltzen gara herrestan. Azkenik, maitasunak laguntzen digu mozorroa aurpegira egokitzen. Hori garrantzi handikoa da, batez ere gure garaiotan (garai guztiak garai berberak badira ere).

\*\*\*

Aspergarria izan behar du hirurehun orriko liburua idazteak. Nik diot, milaka orri idatzita eta itzulita dauzkan honek. Arima pozoindu zait. Itsutzen gaituen islada, neguko arratsalde ez oso hotz batean. Kanpoan, duela hogeitun hunkitzen gintuzten kantak, jada —zorionez— hunkitzen ez gaituztenak. Hala dira gauzak... egun batean esnatzen zaren arte.

\*\*\*

Gutxiago falta dela pentsatzea tontoentzako kontsolamendua da. Nik nahiago dut eskuetan daukaguna. Segundu bateko zehaztasuna eternitate osoko zehazkabetasuna baino hobea da. Baina pentsamenduak ez du askorik laguntzen, egokiera falta zaigunean. Eta gauean, asaldaturik, ohean erdi etzanda, galde egiten dugu: nor dabil hor? Eta isiltasunak erantzuten digu.

\*\*\*

Paris mundu guztiak uste baino zikinagoa da, Parisko garbitasunak gaztaroak adina irauten duelako. Paris atzerriko tren-geltoki bat da, eta zu andenean zaude, maletarik gabe, agertuko dela esan dizuten tren horren zain. «Errail gainean» udako kanta buruan dabilkizu mailua bezala. Orduan, zigarro-kaxa bat (Gitannes) erosi eta zigarro bat pizten duzu, errezeala izateari aspaldi utzi zeniola ohartu gabe.

\*\*\*

Gauza atsegina da egiaztatzea amatasunak jo gabeko zenbait emakume badaudela. Zorra negarrez kitatzen badute ere. Baina, egon, plazerrak bere lekua du, eta engranajeak behar duen koipea ez da inoiz agortzen. Paisaje urbanoetan, hala dira gauzak. Prezioa? Altua, noski. Gure hirietako eraikinak bezain altua. Eta betiko galdera: zergatik? Zoritxarrez, erantzuna kasu hauetan (eta guztietan) sinpleena da. «Moraleja: nork bere kontuak ulertu egingo ditu, zorte apur batekin.»

## **AURKIBIDEA / INDICE**

Azalezko Gogoetak	2
Estilo Berria	14
Letras Rock & Roll	22
Gautu arte * Hasta Romper el Día	27
Ahaztutako Hitzak	31